

Euskararen Jatorriaren VI. Biltzarra

Genetika eta euskararen jatorria



Gares, 2011ko maiatzaren 7an

Egitaraua

- 09:30 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa
09:45 Agurra eta aurkezpena
10:00 Marian Martinez de Pancorbo eta Sergio Cardoso:
Los linajes genéticos de la población vasca hablan de su pasado
10:45 Antonio Arnaiz: *Genética y lingüística vasca: ibérico en Veleia y Pamplona*
11:30 Atsedena
11:45 Stephen Oppenheimer:
The Origins of the British and the Relevance for the Basque Country
(Britaniarren jatorria eta bere garrantzia Euskal Herrirako)
12:30 Mahai ingurua: *La aportación de la genética al origen del euskera*
14:15 Bazkaria
17:00 Bisitaldia: Andelos herri erromatarra eta idazkun iberiarra
18:30 Bienvenido Mascaray, Josu Naberan eta Antonio Arnaiz:
Iberieraz idatzitako Andiongo esaldiaren esanahiaz
Sobre el significado de la frase escrita en ibero de Andion (Andelos)
19:00 Agosti Xahoren jaiotzaren 2. mendeurrena: *Aitor, kantabriar kondaira*
19:30 Bideo proiektzioa: *Euskal jatorrian herri kulturaren ekarpena*
19:45 Arabako Iruña: *azken urteko laburpena*
20:00 Biltzarraren amaiera

Antolatzailea:

Euskararen Jatorriaren Biltzarra
euskararenjatorria@gmail.com



Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Marian Martinez de Pancorbo eta Sergio Cardoso: <i>Los linajes genéticos de la población vasca hablan de su pasado</i>	7
3. Antonio Arnaiz: <i>Genética y lingüística vasca: ibérico en Veleia y Pamplona</i>	17
4. Stephen Oppenheimer:	
<i>The Origins of the British and the Relevance for the Basque Country</i>	25
Diapositiba garrantzitsuenak – Principales diapositivas	28
<i>Britaniarren jatorria eta bere garrantzia Euskal Herrirako</i>	35
<i>El origen de los británicos y su importancia para Euskal Herria</i>	37
5. Bienvenido Mascaray, Josu Naberan eta Antonio Arnaiz: <i>Iberieraz idatzitako Andiongo esaldiaren esanahiaz - Sobre el significado de la frase escrita en ibero de Andion</i> ...	41
6. Agosti Xahoren jaiotzaren 2. mendeurrena: <i>Aitor - kantabriar kondaira</i>	49
7. Bideo proiektzioa: <i>Euskal jatorrian herri kulturaren ekarpena</i>	55
8. Arabako Iruña: azken urteko laburpena.....	57



1. Aurkezpena

Genetika eta euskararen jatorria

Genetika, biologiaren baitan sortutako ikerketa adarra da eta izaki bizidunengan dagoen aldakortasun eta herentziak aztertzen ditu, geneen bidez. Genetikan hainbat ikerketa lerro dago, adibidez, DNA mitokondriala, edo amaren bidez transmititzen diren leinuen ikerketa.

Europan gero eta azterketa gehiago egiten ari da alor honetan, besteak beste, orain dela 15.000 urte azken glaziazioa amaitu ahala, Europa nola populatu zen jakiteko. Azterketa hauen bidez Euskal Herriari buruz informazio oso interesgarriak sortzen ari dira eta, gure ustean, horietan ezagutzea ezinbestekoa da gure herriaren historia hobeto ulertzeko. Horretarako, Euskararen Jatorriaren 6. Biltzarrak genetika izango du hizpide, Europako eta hemengo genetisten eskutik.



Genetika azterketek

Joxemiel Barandiaranen teoria baieztatu dute

Genetika arloan egindako azterketa hauek, Joxemiel Barandiaranek abian jarri zuen teoria indartzen ari dira: euskal populazioa, gutxienez, 8.500 urtez bizi izan da euskal lurraldean. Teoria hau behin betiko egiaztatuko balitz, euskararen jatorrirako oinarri ezin hobea izango genuke, paleolito garaian, euskara izan ote zen eztabaidatzen hasteko.

Genetika arloan ospe handia duen Stephen Oppenheimer izango da Garesen parte hartuko duten hizlarietako bat. Oxford-eko Unibertsitateko irakasle honek, Britainia Handia eta Irlandako 10.000 biztanleen DNA probak aztertu ondoren, honako ondorioa atera du: Britainia Handiko biztanleen osagai genetikoaren %95etik %58ra bitartean, Iberiar penintsularen iparraldetik datorrela, Euskal Herritik bereziki. Informazio guzti hori "The Origins of the British" liburuan azaldu zuen eta liburuaren hasierako mapa ezin interesgarriagoa da: penintsulatik Britainia Handirako gezi nagusiak Euskal Herria du abiapuntua.



Esan beharra dago, Oppenheimerrek bere teoria azaldu arte, indarrean egon den teoria hauxe izan dela: britainiarrak zibilizazio germaniar handi batetik sortutako zelta herriaren ondorengoak direla. Nahiz eta teoria hori maila guztietan zabaldua egon, hango unibertsitateetan barne, eta nahiz eta britainiarrek iberiar penintsulari buruz iritzi oso ona ez izan (PIGS famatu hori) Oppenheimerrek, zientzia, gauza guztien aurretik jarriz, ez zuen zalantzarik izan bere ikerketek emandako ondorioak gizarteratzeko. Eta britainiarrek, aurreiritziekin jokatu beharrean, haren teoria berriari ate guztiak zabaldu zizkioten.

Oppenheimerren liburua 2005 eta 2006 bere herrialdean best seller izateaz gain, bere tesia britainiar guztiengana heldu zen irrati, telebista eta prentsaren bidez. Harrigarria bada ere, ikerketa argitaratu eta 5 urte luze pasatu ondoren Oppenheimer ez da inoiz Euskal Herrira hitzaldi bat emateko gonbidatua izan, orain arte. Oxford-eko genetistak, DNA frogekin, azaldu du azken glaziazioan Europa gehiena izotzez estalita egon zenean, gizakia desagertu zela ia Garonatik iparraldera. Garai hartan bizitzeko leku bakarrenetakoak Europan Iberiar Penintsula-Akitania ingurunea zen, Ukraina-Balkanekin batera. Eta bi leku horietatik abiatu zirela Britainia Handia eta Irlanda populatu zuten biztanleak.

Oppenheimerren tesi honek Municheko Unibertsitateko Theo Vennemann-en teoria indartzen du, eta Theok euskararen eta hizkuntza germanikoen artean proposatzen dituen harremanei azalpen logikoa ematen die.



Baina VI. Biltzarrean genetika lan oso interesgarriak egin dituzten genetista gehiago izango ditugu hizlari. EHUko DNA bankuko Biomics enpresako Marian Martinez de Pancorbok eta Sergio Cardosok arlo honetan egin dituzten lanen berri emango digute, zehazki, Kantauri isurialdeko giza leinuek Europako mapa genetikoan duten garrantzia.

Gaur egungo laginak aztertuta eta Europako beste hainbat giza populazioen inguruko datuekin alderatuta, ondorio nagusi eta argia atera dute Marianek eta Sergiok: duela

15.000-20.000 urte hemengo aterpera heldu ziren gizakiek garatu zituzten ezaugarri genetikoak, neurri batean, egungo gizakien DNAn islatzen direla.


Horrela DNA mitokondrialaren aldakortasuna aztertuz, babesleku franko-kantauriarreko populazioek glaziazio osteko Europaren birpopulaketan izan zuten inplikazioa nabaria dela aipatzen dute: "Babesleku franko-kantauriarra Frantziako hego-mendebaldean hasi eta Kantauri isurialdearen ekialderaino zabalduko litzateke. Kokapen hori, azken glaziazioan Europa iparraldetik klima-egoera gogorragatik hegoalderantz migratu zuten giza taldeen babesleku garrantzitsuena da".

Neurri handi batean, Stephen Oppenheimerren lanarekin bat egiten dute Marianek eta Sergiok egindako azterketek. Horrela populazio horiek glaziazio osteko Europaren birpopulaketan izan zuten papera gero eta argiago dagoela dirudi, H1 eta V leinuek birpopulaketa prozesuaren markatzaile genetiko gisa duten garrantziagatik eta J1c, U5b eta T2b leinuek aintzat hartzea proposatuz.

Genetika arloan lan mardula egin duen Antonio Arnaiz ere izango dugu hizlari maiatzaren 7an. Arnaizek 9 urtez Britainia Handian egin zituen ikasketak eta orain Madrikgo Unibertsitateko Complutenseko irakaslea da, Biologian eta Medikuntzan lizentziatu ondoren. 340 artikulua idatzi ditu, gehienak nazioarteko aldizkarietan, immunologia, genetika eta hizkuntzalaritzari buruz. Aurreko hizlariak bezala, DNA azterketa esanguratsuak egin ditu Antoniok estatuan zein atzerrian. Genetika lanak hizkuntzalaritza lanekin uztartu ditu eta guztira, 9 liburu argitaratuta dauka.

Antoniorentzat, DNA azterketetan oinarritua, herri mediterraniarren artean, iberiar eta euskaldunak barne, lotura oso estuak egon direla azaltzen du eta hizkuntzetan horien arrasto batzuk gaur egun mantentzen direla desagertu ez diren herrietan (hizkuntza dene-kaukasiarrak). Egin dituen azterketa genetikoaren artean honako herri hauetakoak ditugu: Euskal Herria (Arratia), Kantabria (Pasiaguak eta Caguernigoak), Palestina, Argelia eta herri amerindiarrak (mayak, ketxuak, aimarak...).

Genetikak Euskal Herriaren historia eta euskara hobeto ulertzeko, orain 50 urte pentsaezinak zitezkeen informazio interesgarriak eman ditzake. Informazio horiekin Joxemiel Barandiaranek euskaldunon iraupenari buruzko edo Estornes Lasak euskal-akitaniar zibilizazioari buruzko teoriak frogatu daitezkeela pentsatzea zirrargarria izateaz gain, euskararen jatorria aurkitzeari ate berriak zabalduko dizkiotela ziur gaude.



Baina genetikaz gain gauza interesgarri gehiagoz gozatzeko aukera izango dugu gaurkoan. Arratsaldean Andelos (Andion iberieraz) herri erromatarra bisitatuko dugu, ondoko Mendigorria herrian. Bertan iberieraz idatzitako eta agian euskara izan daitekeen esaldi garrantzitsua aurkitu zelako. Bere esanahia argitzeko, beste biltzarretan partaide izan ditugun Bienvenido Mascaray, Josu Naberan eta Antonio Arnaiz izango ditugu.

Ondoren, etimologiari buruz lehenenatariko liburu bat idatzi zuen Agosti Xahoren jaiotzaren 200. urtea ospatuko dugu bere “Aitor kantabriar kondaira” liburuaren proposamen etimologiko batzuk gogoratuz. Aurten Hector Iglesiasek mende erdi eta gero euskaraz jarri duen liburu honetan hainbat etimologia proposatzen du Agostik eta horietako batzuk ezagutuko ditugu.

Gero, euskararen jatorrian herri ekarpena gogoratzen duen bideo bat eskainiko digu Floren Erezumak eta, amaitzeko, Arabako Iruñan azken urte honetan izan diren gertaera nagusiak gogoratuko dira biltzarraren amaieran, batez ere epaileak Eliseo Gilek egindako datazioen eskaeraren onarpena eta pasa den uztailean eremua suntsitzeko hasitako prozesua. Euskararen Jatorriaren Biltzarra elkartearen baitan diharduen Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak egindako ekimenen berri emango da.

VI. Biltzarrean lagundu duen erakundea: Garesko Udala



Stephen Oppenheimer Euskal Herrira ekartzeko lagundu duen erakundea

